HERNANIKO BERDINTASUNERAKO IV.PLANA (2024-2030)



Hernaniko Udala

elhuyar

AURKIBIDEA

1. **Sarrera**
2. **Nola egin da Plan hau?**
3. **Marko arautzaileak eta programatikoak**
4. **III. Planaren ebaluazioa laburrean**
5. **Plana garatzeko printzipio eta bermeak**
6. **IV. PLANA:** Deskribapena, esku-hartze arloak, helburuak eta ekintzak.
7. **Kudeaketa-sistema**




01 SARRERA

Esku artean duzu Hernanirako IV. Berdintasunerako Plana. 2024tik 2030ra bitarteko indarraldia izango du.

Asko aldatu da azken urte gutxitan emakume eta gizonen berdintasunerako planak egiteari buruzko araudia. Gauzak horrela, Plan honetan jasotakoa Hernanin berdintasun-politiketan egindako bide luzea Berdintasun Politiken markoan kokatzeko ariketa izan da.


Hauek dira, legez berdintasun plan batek jaso behar duen informazioa:



Informazio hori guztia laburtzen duen dokumentua da honakoa. Helburua izan da tresna ulergarri eta erabilgarria egitea. Horrela, sei ataletan banatu da.



*Testu honetan, emakumeei eta gizonei buruz hitz egiten denean gizarte arauek eragiten duten pertsonen banaketa binarioaz ari gara, ez norberaren genero-identitateaz. Izan ere, identitateez haratago, binarismoak bereizkeria errealak sortzen baititu emakume eta gizonen artean, eta bereizkeria hauek identifikatzeko, egun oraindik beharrezko ditugun kategoriak dira.



02 NOLA EGIN DA PLAN HAU?

Atal honetan, IV. Planaren diseinua egiteko antolatutako parte hartze eta kontrasterako espazioak deskribatzen dira oso modu laburrean.

2023ko bigarren sei-hilabetean zentratu da III. Plana ebaluatu eta IV. Plana diseinatzeko ariketa.


- Lehenik, Udal gobernuko ordezkariei aurkeztu zaie aurreko urteetan egindako lana.
- Bigarrenik, Berdintasun Sailaren lantaldeak III. Berdintasun Planean jasotako ekintzen betetze-maila neurtzeko ariketa egin du, eta helburuen betetze-mailari buruzko hausnarketa.
- Hirugarren pausoan, hurrengo urteetako erronkak identifikatu eta IV. Planaren zirriborroa egiteko lan-saio teknikoa egin da. Bertatik, ateratako dokumentua udal gobernuari aurkeztu zaio, beharrezko egokitzapenak egiteko.
- Ondoren, Berdintasun kontseiluan III. Planaren ebaluazioa eta IV. Planaren proposamena aurkeztu da.
- Azkenik, Udal Gobernuak udalbatzako gainerako talde politikoekin konpartitu du IV. Plana, adostasun politikoak bermatzeko.



03 MARKO ARAUTZAILEA

BEIJINGeko HITZARMENA, 1995.
"Sexuen arteko berdintasuna sortzeko, botere publikoek genero ikuspegia txertatu behar dute beren ekintza, jarduera eta eremu guztietan"

EB Funtzionamendurako Tratatua (Lisboako 2009) *8.artikulua: "Europar Batasunak, bere ekintza guztietan helburutzat hartuko du emakume eta gizonen arteko bereizkeriak ezabatzea eta berdintasuna sustatzea."*



1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

"3. artikulua: Printzipioak
Hauek dira publikoen jarduera gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorrak: *tratu-berdintasuna; aukera-berdintasuna; emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea eta desagerraraztea; dibertsitatea eta desberdintasuna errespetatzea;* ***genero-ikuspegia txertatzea; ekintza positiboa;*** *generoaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea; ikuspegi intersekzionala txertatzea; sexu- edo genero-identitatearen garapen askea, sexu-orientazioa, gorputz-autonomia eta autodeterminazioan; ordezkaritza orekatua; lankidetza eta koordinazioa eta nazioartekotzea;* ***emakumeen ahalduntzea****; gizonen inplikazioa; parte-hartzea; berrikuntza, gardentasuna eta kontu-ematea; hizkuntza-eskubideen babesa eta euskararen erabileraren sustapena."*

ONDORIOAK:

- **Administrazioaren ardura** da konszienteki emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea udal **arlo guztietatik**.
- Horretarako erabili beharreko **estrategiak** ezartzen ditu marko arautzaileak:
  1. **Genero ikuspegia txertatzea administrazioren** eginkizun eta jarduera guztietan
  2. **Ekintza positiboak** sustatzea, hauen artean ezagunenak **emakumeen ahalduntzeari buruzkoak**.

03 MARKO PROGRAMATIKOA

Garapen Jasangarria Helburu 2030
5. Helburu Estrategikoa: "*Genero berdintasuna eta emakume eta neskatilen **ahalduntzea**"*

Europako emakume eta gizonen berdintasunerako Plana
Estrategia 2020-2025

EAEko emakume eta gizonen berdintasunerako VII. Plana *(2018-2023)*

Lan-ardatzak:



Gobernu ona



Emakumeen ahalduntzea




Ekonomia eta gizarte antolaketa eraldatzailea



Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak


BERDINTASUN PLANETAN LANDU OHI DIREN GAIAK:




04 III.PLANAREN EBALUAZIO LABURREAN

- III. Planaren garapen maila oso altua izan da. Gobernu onaren ardatza alde batera utzita, gainontzeko ardatzak ia %100ean bete dira. Orotara 99 ekintza zirenez, datuetan zenbaki absolutuak edo ehunekoak berdinak dira.
- Gobernu onaren ardatzean neurrien % 59a bete da. Gainontzeko ardatzetan % 85etik gora. Aipagarria da “Emakumeen ahalduntzearen” ardatza % 92 baino gehiago bete dela.


Gobernu ona




Emakumeen ahalduntzea




Ekonomia eta gizarte antolaketa eraldatzea




Indarkeria matxistarik gabeko herria



III Planaren betetze maila



Planaren betetze maila ardazka



03 III.PLANAREN EBALUAZIO LABURREAN

Gobernu onaren ardatzean zeuden helburu guztiei heldu zaie. Konpromiso politikoari lotutako ekintza guztiak garatu dira, eta gainontzeko helburuetan, lehen ekintzak burutu dira. Egin gabe geratu direnak, gehien bat, mainstreaminga sistematizatzearekin lotutakoak izan dira. Hala ere, helburu guztiei heldu zaie eta proba pilotu ugari egin dira.

Oro har, **Plangintza eraldatzailea izan dela esan daiteke eta Berdintasun Politikak garatzen jarraitzeko oinarri sendoak jarri direla**. Neurri esanguratsuak zerrendatu ditugu ezkerraldean.

Mainstreaming estrategia modu iraunkorrean lantzen jarraitu da, 2016az geroztik lantzen ari den moduan. Lan ildo horretatik ere aipagarriak dira zenbait ekimen:

- Klausula Sozialak lantzeko lantalde iraunkor bat jarri da martxan udalean, prozedura bat zehaztu da eta pilotajeak egin dira kontratuen diseinutik pleguen idazketetara, baita lizitatu diren proposamenen jarraipena egitera ere.
- Genero Eraginaren Aurretiazko Ebaluaketa egiteko prozedura ere elkarlanean adostu da eta proba pilotua egin da Kiroldegiko arautegiarekin. Horrez gain, hainbat arautegietan jarraitu da prozedura.
- Ordezkari politikoen inplikazioa bilatu da administrazio prozeduren eraldaketa hauetan.

Bestetik, azpimarragarria da Hernaniko Udala aukeratu dutela **Europa mailan, “transizioan dauden udalerrien sarean”** politika aurrerakoien eredu gisa, gehien bat bere Berdintasun Politiken kudeaketagatik (MEET proiektua).

Plangintzaldiko LORPENAK:

1. **Kulturarteko Plaza Feminista espazioa** ireki da, 900 metro karratu baino gehiagoko ekipamendua, emakumeen ahalduntzea, feminismoa, eta kulturartekotasuna bultzatzea helburu duena.

2. **Lantaldea bikoiztu egin da**. Bi pertsona eta erdi lan egitetik 5 pertsona lanean egotera pasa dira.

3. **Zaintza beharren eta egoeren diagnostikoa eta ekintza plana:** Esaterako zaintzen-mahaia sortu da herri mailan, zaintzaile profesionalen arteko kooperatiba (Maitelan), Etxez Etxeko langileen kontratuaren lanketa berezia klausula sozialak praktikan jarriz, eta abar.

4. Udaltzain eta gizarte zerbitzuekin **lanketa iraunkorra, koordinazioa** eta elkarren aitortza.

03 III.PLANAREN EBALUAZIO LABURREAN

Aurrera begirako erronkak:

Aurrera begira jarrita, lau ataletan banatu ditugu IV. Planaren bidez erantzun nahi ditugun erronkak.

Erronkak Zaindu

- Lantalde berria zaindu. Pertsona asko gara orain, eta behar nahiz zeregin asko ditugu.
- Orain arte egindako guztia zaindu, berrikuntza asko egon baitira

Erronkak Utzi

- Presak eta estresa utzi. Gauza berri asko jarri dira martxan urte gutxitan. Egin denari eustea lorpen handia da jada.
- Mainstreaming estrategiak jaten duen denbora neurtu.

Erronkak Sakondu


- Kulturarteko Plaza Feminista espazioa gorpuzten jarraitu. Berria da eta gai asko geratzen dira definitzeko.
- Zaintzaren gaian sakontzen jarraituko dugu.

Erronkak Probatu

- Indarkeria matxista pairatu duten emakumeen esperientziak bildu, ahotsa eman.

05 PRINTZIPIOAK eta BERMEAK

Hernaniko IV. Berdintasun Plana garatzeko erabiliko diren printzipio eta bermeak hauek izango dira:



PRINTZIPIOAK:

1. **Paradigma feministatik lan egitea.** Hau da, ezagutza, teoria eta ikuspegi feministatik garatuko den Plana izatea.
2. **Emakumeen ahalduntzea** helburu duen Plana izatea. Hau da, emakumeen posizionamendu soziala indibidual eta kolektiboa hobetzea helburu duena, parekidetasunera iristeko estrategia gisa.
3. **Intersekzionalitatearen teoria** kontuan hartuz egitea plana**.** Hau da, botere harreman asko gurutzatuak gaudela kontuan izanik, bestelako zapalkuntzek eta pribilegioek nola eragiten duten aintzat hartzea.
   - *Adibidez; Pobrezia, arrazakeria, pertsona migratuen errealitatea, euskararen errealitate linguistikoa, lehen sektorearen errealitatea, zaintza beharrak dauzkatenen errealitatea, eta abar.*

BERMEAK:

1. **Ardura partekatua**. Udal barruko arlo guztien arteko elkarlanaren bidez bultzatuko dira Berdintasun Politikak, bai arlo tekniko nahiz politikotik.
2. **Koordinazioa eta elkarlanean** oinarrituko den plana; bai udal barruan, bai herritar eta administrazioen artean ere.
3. **Errealista eta egingarria.** Arnas luzeko lana da berdintasuna sustatzea. Horregatik, anbiziosoak izateari utzi gabe, arreta jarriko da lan egiteko modu egingarri eta errealistetan.



06 IV. PLANA: Deskribapena

IV. Plana diseinatzeko irizpide hauek hartu dira kontuan:

1. Plana lanerako tresna izan behar da, beraz, dokumentu arina, ulergarria, errealista eta egingarria egitea izan da asmoa.
2. Emakunderen VIII. Plana izango denari jarraiki, 2030 urtera bitarteko plangintza osatu da, 7 urtekoa, alegia.
3. Ekonomia eta gizarte antolaketa eraldatzailearen ardatza bi ardatzetan banatu da. Batetik, gai asko batzen zituen ardatza zelako, eta bestetik, Zaintzaren gaiak dimentsio handia hartu baitu Berdintasun Politiken planifikazioan.

IV. PLANA DATUETAN

- **5 esku-hartze arlo**
- **25 helburu**
- **93 ekintza**
- **18 ebaluazio adierazle**

1. GOBERNU ONA	2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	3. ZAINTZAREN ANTOLAKETA ERALDATZAILEA	4. GIZARTE-ANTOLAKETA ERALDATZEA	5. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA
12 helburu 41 neurri	3 helburu 14 neurri	4 helburu 11 neurri	3 helburu 10 neurri	3 helburu 17 neurri

1. ARDATZA: GOBERNU ONA

LAN-ARDATZA	PROGRAMAK	HELBURUAK	NEURRI-KOPURUA
1. GOBERNU ONA	KONPROMISO POLITIKOA	G.O.1. Berdintasunerako plangintza garatzea, segimendua egitea eta ebaluatzea.	7 neurri
		G.O.2. Berdintasunerako esku-hartzea garatzeko baldintzak bermatzea.	
	KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA	G.O.3.Berdintasun-politikak garatzeko koordinazioa eta elkarlana bultzatzea	5 neurri
	BERDINTASUNEKO TREBAKUNTZA	G.O.4. Hernaniko Udala osatzen duten pertsonak berdintasunean trebatzea, berdintasuneko trebakuntza espezifikoa eskainiz.	2 neurri
	GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN	G.O.5. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.	17 neurri
		G.O.6. Komunikazioan berdintasun-ikuspegia txertatzea.	
		G.O.7. Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasuneko klausulak txertatzea.	
		G.O.8. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.	
		G.O.9. Udal-organo nahiz gainontzeko erabaki guneetan ordezkaritza eta partaidetza orekatua bultzatzea.	
	GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA SEKTORIALETAN	G.O.10. Udaleko lanpostuen eta langileen lan-baldintzetan berdintasun-printzipioa txertatzea	8 neurri
		G.O.11. Udaleko sailek bere jardueran genero-ikuspegia txertatzea.	
	PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA	G.O.12. Berdintasun Kontseiluaren bidez, herriko eragile feministekin eta mugimendu feministarekin elkarlanean politika feministak diseinatzea, segimendua egitea eta ebaluatzea.	2 neurri
			41 neurri

2. ESKU-HARTZE ARLOA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

LAN-ARDATZA	PROGRAMAK	HELBURUAK	NEURRI-KOPURUA
2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA ETA KOLEKTIBOA	E.A.1. Emakumeen genero-kontzientzia, autonomia eta autoestimua sustatzea.	4 neurri
	EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIALA ETA POLITIKOA	E.A.2. Emakumeek jendartean parte hartu dezaten sustatzea, eremu eta gune guztietan.	4 neurri
	KULTURARTEKO PLANA FEMINISTA	E.A.3. Kulturarteko Plaza Feminista sendotzea.	6 neurri
			14 neurri

3. ESKU-HARTZE ARLOA: ZAINTZAREN ANTOLAKETA ERALDATZEA

LAN-ARDATZA	PROGRAMAK	HELBURUAK	NEURRI-KOPURUA
3. ZAINTZEN ANTOLAKETA ERALDATZEA	EGITURAK	Z.A.E.1. Zaintza-lanak demokratizatzeko egiturak sendotzea	2 neurri
	SENTSIBILIZAZIOA eta TREBAKUNTZA	Z.A.E.2. Zaintza-lanen gainean herria sentsibilizatu eta trebatzea	3 neurri
	ARTIKULAZIO KOMUNITARIOA	Z.A.E.3. Artikulazio komunitarioa sustatzea	3 neurri
	BALIABIDEAK	Z.A.E.4. Zaintzaileen eta zaintzarako guneak indartu eta baliabideak sortzea	3 neurri
			11 neurri

4. ESKU-HARTZE ARLOA: GIZARTE ANTOLAKETA ERALDATZEA

LAN-ARDATZA	PROGRAMAK	HELBURUAK	NEURRI-KOPURUA
4. GIZARTE-ANTOLAKETA ERALDATZEA	HEZKIDETZA, TRATU ONAK ETA SEXUALITATE ASKEA	G.E.3. Hezkuntza formalean nahiz ez-formalean berdintasuna, tratu onak eta sexualitate askea sustatzea.	3 neurri
	HERRITARREN SENTSIBILIZAZIOA	G.E.4. Herritarrak feminismoaren inguruan sentsibilizatzea eta trebatzea.	4 neurri
	OROIMEN HISTORIKOA	G.E.5. Emakumeen nahiz bestelako gorputz ez-normatiboen ikusgaitasuna eta aitortza lantzea, arlo ezberdinetan egindako ekarpenak ikusaraziz.	3 neurri
			10 neurri

5. ESKU-HARTZE ARLOA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA

LAN-ARDATZA	PROGRAMAK	HELBURUAK	NEURRI-KOPURUA
4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA	SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA	I.M.1. Indarkeria matxistarik gabeko herria lortzeko herritarrak sentsibilizatzea.	7 neurri
	KOORDINAZIOA ETA BABES OSOA	I.M.2. Erakundeen eta Udaleko sailen artean indarkeria matxistaren kasuen kudeaketa eta koordinazioa hobetzea	6 neurri
	AITORTZA ETA ERREPARAZIOA	I.M.3. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei babes eta arreta osoa bermatzea eta ahalduntze-prozesuetan laguntzea.	4 neurri
			17 neurri

2024-2030

PLANA EKINTZAZ EKINTZA



1. Lan-ardatza: GOBERNU ONA

HELBURUAK	NEURRIAK	ARDURADUNA(K)	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030
G.O.1. Berdintasunerako plangintza garatzea, segimendua egitea eta ebaluatzea.	G.O.1.1. Berdintasunerako Plana Udalbatzan onartu eta abiatu.	Berdintasuna	■						
	G.O.1.2. Berdintasunerako Plana garatu; eta, horretarako, urte bakoitzeko urteko lan-plangintza diseinatu.	Berdintasuna	■	■	■	■	■	■	■
	G.O.1.3. Berdinlanean Batzorde Politikoa bildu lan-plangintza aurkeztu, kontrastatu eta adosteko.	Berdintasuna		■		■		■	
	G.O.1.4. Berdintasunerako Planaren urteko memoriak landu, Planari segimendua egin eta egindako lana ebaluatu ahal izateko.	Berdintasuna	■	■	■	■	■	■	■
	G.O.1.5. Planaren indarraldiaren bukaeran Planaren ebaluazioa egin.	Berdintasuna							■
G.O.2. Berdintasunerako esku-hartzea garatzeko baldintzak bermatzea.	G.O.2.1. Berdintasunerako esku-hartzea bideratzeko beharrezkoa den aurrekontua aurreikusi urtero.	Berdintasuna Alkatetza	■	■	■	■	■	■	■
	G.O.2.2. Berdintasunerako esku-hartzea bideratzeko beharrezkoak diren bitarteko pertsonalak egonkortu eta bitarteko materialak ezarri.	Berdintasuna Alkatetza	■	■	■	■	■	■	■
G.O.3.Berdintasun-politikak garatzeko koordinazioa eta elkarlana bultzatzea	G.O.3.1. Berdinlanean Batzorde Politikoarekin agintaldi bakoitzaren hasieran lan-saio trinko bat egin, genero-berdintasunean trebatzeko.	Berdintasuna				■			
	G.O.3.2. Sailarteko Berdinlanean Batzorde Teknikoarekin lanean jarraitzea. Batzordea bildu urteko lan-plangintza aurkeztu, kontrastatu eta adosteko. Beharrezkoa bada, berariazko lanketak egiteko urtean zehar ere bilerak egin.	Berdintasuna	■	■	■	■	■	■	■
	G.O.3.3. Genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko dagoeneko martxan dauden sailarteko lantaldeen dinamikarekin jarraitu (Klausula Sozialen lantaldea, Modernizazioarekin elkarlana, Zaintza Mahaia…), eta, beharrezkoa bada, lantalde espezifikoak sortu bestelako lanketak egiteko.	Berdintasuna	■	■	■	■	■	■	■
	G.O.3.4. Berdinlanean Buletina argitaratu, Udal-langile nahiz ordezkari politikoei egiten ari garen lanaren berri emateko. Gutxienez urtean behin.	Berdintasuna	■	■	■	■	■	■	■
	G.O.3.5. Berdintasunerako erakunde arteko egituretan parte hartu (Gipuzkoako Teknikarien Sarea...).	Berdintasuna	■	■	■	■	■	■	■
G.O.4. Hernaniko Udala osatzen duten pertsonak berdintasunean trebatzea, berdintasuneko trebakuntza espezifikoa eskainiz.	G.O.4.1. Zeharlerrotasunaren estrategia garatu ahala, Udal-langileek berdintasunaren arloan zer-nolako trebakuntza-beharrak dituzten identifikatu, eta kasu bakoitzerako proposamenak egin.	Berdintasuna Gainontzeko sailak	■	■	■	■	■	■	■
	G.O.4.2. Genero-ikuspegia sail bakoitzaren jarduera-eremuan txertatzeko trebakuntza, bide-laguntza eta elkarlana landu.	Berdintasuna Gainontzeko sailak		■		■		■	
G.O.5. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.	G.O.5.1. Sailen inprimaki eta datu-baseak egokitu, informazioa sexua-generoaren arabera bereizita jasotzeko, modu progresiboan.	Berdintasuna Gainontzeko sailak	■	■	■	■	■	■	■
	G.O.5.2. Sexua-generoaren arabera bereizitako datuak genero-ikuspegiarekin irakurtzeko bideak landu.	Berdintasuna Gainontzeko sailak			■	■	■	■	■
	G.O.5.3. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzeko jarraibideak landu eta zabaldu.	Berdintasuna					■		
	G.O.5.4. Ikerketa-behaketa bat egin udal-mailako estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia nola txertatzen ari garen ikusteko.	Berdintasuna						■	

1. Lan-ardatza: GOBERNU ONA

HELBURUAK	NEURRIAK	ARDURADUNA(K)	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030
G.O.6. Komunikazioan berdintasun-ikuspegia txertatzea.	G.O.6.1 Udalaren komunikazio-gidan jasotako irizpideak eta gomendioak ezagutzeko, gogoratzeko eta barneratzeko aldian-aldian ekintzak antolatu, adib., trebakuntza-saioak.	Berdintasuna			■			■	
	G.O.6.2 Behaketa bat egin Udalaren komunikazio-irizpideen betetze-maila ezagutzeko eta, beharrezko bada, neurri zuzentzaileak hartzeko.	Berdintasuna		■			■		
	G.O.6.3 Azterketaren emaitzen berri eman udal-langile eta ordezkari politikoei.	Berdintasuna		■			■		
G.O.7. Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak txertatzea.	G.O.7.1 Kontratazio arduratsua lantzeko eta sailen arteko elkarlanaren kultura bultzatzeko, Klausula Sozialen lantaldea bideratu eta parte hartu.	Berdintasuna Kontratazioa	■	■	■	■	■	■	■
	G.O.7.2 Kontratazio arduratsurako elkarlaneko prozedura udal-sail guztiek barneratzeko eta udalaren egiteko moduetan instalatzeko lanketarekin jarraitu. Kontratu esangutasuekin proba pilotuak garatu, ebaluatu eta ikaspenak atera.	KS lantaldea	■	■	■	■	■	■	■
	G.O.7.3 Beste sailetako dirulaguntza eta hitzarmenetan genero-ikuspegia txertatzeko gainerako sailei ekarlana eta bidelaguntza eskaini.	Dagokion saila Berdintasuna	■	■	■	■	■	■	■
G.O.8. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.	G.O.8.1 Araudiak egiten dituzten sailei elkarlana, bidelaguntza, aholkularitza eta trebakuntza eskaini genero-eraginaren ebaluazioak egiteko.	Berdintasuna Idazkaritza	■	■	■	■	■	■	■
	G.O.8.2 Udalean lantzen diren araudien Genero Eraginaren Aurretiazko Ebaluazio (GEAE) txostenak egin, elkarlanerako prozedurari jarraituz.	Dagokion saila Berdintasuna	■	■	■	■	■	■	■
	G.O.8.3 Udal-sailek egindako Genero Eraginaren Aurretiazko Ebaluazio txostenen egiaztatze-txostenak landu, dagokion sailarekin elkarlanean.	Dagokion saila Berdintasuna	■	■	■	■	■	■	■
	G.O.8.4 Udalean egiten den Genero Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioaren prozedura eta eragina aldian-aldian aztertu eta baloratu.	Berdintasuna			■			■	
G.O.9. Udal-organo nahiz gainontzeko erabaki guneetan ordezkaritza eta partaidetza orekatua bultzatzea.	G.O.9.1 Udal-organo nahiz gainontzeko erabaki-gune iraunkorretan, berariazkoetan eta kanpoko agerraldietan ordezkaritza orekatua dagoen aztertu.	Berdintasuna				■			
	G.O.9.2 Azterketaren emaitza kontuan hartuta, eta, beharrezkoa bada, hobekuntza-neurriak hartu sexuen arteko ordezkaritza orekatua eta berdintasun-gaietan aditua den norbaiten parte-hartzea bermatzeko.	Berdintasuna Alkatetza Dagokion saila				■	■		
	G.O.9.3 Udal-organo edo erabaki gune berrien araudietan ordezkaritza eta partaidetza orekatuaren irizpideak bermatu behar direla jaso.	Berdintasuna Alkatetza					■		

1. Lan-ardatza: GOBERNU ONA

HELBURUAK	NEURRIAK	ARDURADUNA(K)	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030
G.O.10. Udaleko lanpostuen eta langileen lan-baldintzetan berdintasun-printzipioa txertatzea	G.O.10.1 Hernaniko Udaleko Berdintasunerako Barne Plana lantzeko prozesua irudikatu, adostu eta bidea elkarrekin egiteko egitura bat sortu.	Pertsonala Berdintasuna	■						
	G.O.10.2 Hernaniko Udaleko langileen berdintasunaren gaineko diagnostikoa landu.	Pertsonala	■	■					
	G.O.10.3 Diagnostikoa aztertu eta Berdintasunerako Barne Plana adostu horretarako propio sortutako batzordean, Langileen Batzordearekin, Pertsonaleko arduradunekin eta Udal Gorbenuarekin, besteak beste.	Pertsonala		■	■				
	G.O.10.4 Lanpostu berrien mailaketa lantzeko Batzordean parte hartu genero-ikuspegia txertatzeko.	Pertsonala Berdintasuna	■	■	■	■	■	■	■
	G.O.10.5 Laneko sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloa aztertu eta, beharrezko bada, berritu	Pertsonala Berdintasuna			■	■			
G.O.11. Udaleko sailek bere jardueran genero-ikuspegia txertatzea.	G.O.11.1. Langile berriek beren jardueran berdintasun-printzipioa txertatzeko ezinbestean ezagutu beharreko alderdiak identifikatu eta langile berrientzako materiala sortu.	Berdintasuna	■						
	G.O.11.2. Langile berri bat iristen den bakoitzean, jakin beharreko informazio hori nola helaraziko diogun aztertu (emailez, bilera bat...) eta garatu.	Pertsonala Berdintasuna	■	■	■	■	■	■	■
	G.O.11.3.Sailekin etengabeko harremana eduki, beren esku-hartzeetan genero-ikuspegia nola txertatu lantzeko, modu progresiboan.	Sail guztiak	■	■	■	■	■	■	■
G.O.12. Berdintasun Kontseiluaren bidez herriko eragile feministekin eta mugimendu feministarekin elkarlanean politika feministak diseinatzea, segimendua egitea eta ebaluatzea.	G.O.12.1.Berdintasun Kontseilua indartu eta orain arteko dinamikarekin jarraitu, hilean behin bilduz.	Berdintasuna	■	■	■	■	■	■	■
	G.O.11.2.Berdintasun Sailaren jarduera garatu Kontseiluan hartzen diren erabakiak aintzat hartuta.	Berdintasuna	■	■	■	■	■	■	■

2. Lan-ardatza: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

HELBURUAK	NEURRIAK	ARDURADUNA(K)	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030
E.A.1. Emakumeen genero-kontzientzia, autonomia eta autoestimua sustatzea.	E.A.1.1. Jabetze Eskolaren programazioa adostu Berdintasun Kontseiluan, ikuspegi-feminista aintzat hartzen dela bermatuta.	Berdintasuna Berdintasun Kontseilua							
	E.A.1.2. Orain arteko dinamikarekin jarraituz, Jabetze Eskolaren programazioari hasiera emateko Leokako emanaldia antolatu emakume-sortzaileen lanak ikusarazteko.	Berdintasuna Berdintasun Kontseilua							
	E.A.1.3. Jabetze Eskolaren ikastaroak antolatu, urtean bi programazio eskainiz, eta horien kudeaketa- eta jarraipen-lanak egin.	Berdintasuna							
	E.A.1.4. Jabetze Eskolako programazioak herriko emakumeen artean zabaltzeko bitartekoak sortu eta hedatu.	Berdintasuna Berdintasun Kontseilua							
E.A.2. Emakumeek jendartean parte hartu dezaten sustatzea, eremu eta gune guztietan.	E.A.2.1. AMHER-SOS Arrazakeriaren jardueran eta funtzionamenduan genero-ikuspegia txerta dadin sustatu.	Berdintasuna Kulturartekotasuna Amher-SOS Arrazakeria							
	E.A.2.2. Herriko emakume anitzen (adina, jatorria, klasea…) arteko sareak eta elkarlana sustatzeko bideak landu ikuspegi-intersekzionala aintzat hartuta eta emakumeen ahalduntze-prozesuak sustatzeko.	Berdintasuna Kulturartekotasuna Amher-SOS Arrazakeria Eragile feministak							
	E.A.2.3. Beste herrialde batzuetako emakumeen ahalduntze-prozesuak eta sareak sustatu.	Berdintasuna Lankidetza Kooperazio Taldea							
	E.A.2.4. Emakumeen ahalduntzea sustatzea helburu duten sentsibilizazio-ekimenak antolatu.	Berdintasuna Dagokion saila							
E.A.3. Kulturarteko Plaza Feministaren egitasmoa sendotzea	E.A.3.1. Kulturarteko Plaza Feministaren egitasmoa aurrera eramateko, bertako langile eta arduradunen arteko asteroko koordinaziorako eta lanaren jarraipenerako bilerak bermatu.	Berdintasuna Kulturartekotasuna							
	E.A.3.2. Etengabeko koordinazioa bermatu AMHER-SOS Arrazakeria elkartearekin.	Berdintasuna Kulturartekotasuna							
	E.A.3.4. Kulturarteko Plaza Feministaren egitasmoa garatzen jarraitu *gogoeta-ekintzaren* bidez: unean uneko erronkak definitu eta horiei aurre egiteko bitartekoak aztertu.	Berdintasuna Kulturartekotasuna							
	E.A.3.5. Kulturarteko Plaza Feministaren jarduera garatzeko beharrezkoa den aurrekontu-partida aurreikusi urtero.	Berdintasuna Kulturartekotasuna							
	E.A.3.6. Kulturarteko Plaza Feministaren izaera komunitarioa sustatzen jarraitzea, herritarren parte hartzea lantzea eta garatzea.	Berdintasuna Kulturartekotasuna							
	E.A.3.7. Herri-mailan Kulturarteko Plaza Feminista ezagutarazteko, herrira hurbiltzeko eta herriarentzat erreferentzia espazio bat izateko lanketa egin; esaterako ikastetxeekin eta bestelako eragileekin bisita gidatuak antolatu.	Berdintasuna Kulturartekotasuna							

3. Lan-ardatza: Zaintzen antolaketa eraldatzea

HELBURUAK	NEURRIAK	ARDURADUNA(K)	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030
Z.A.E.1. Zaintza-lanak demokratizatzeko egiturak sendotzea	Z.A.E.1.1. Zaintza Mahaia egonkortu eta funtzionamendu egokirako bitartekoak eskaini.	Berdintasuna, Zerbitzu Sozialak eta Tokiko Garapena							
	Z.A.E.1.2. "Zaintza talde herritarra" taldea indartu.	Berdintasuna, Zerbitzu Sozialak eta Tokiko Garapena							
Z.A.E.2. Zaintza-lanen gainean herria sentsibilizatu eta trebatzea	Z.A.E.2.1. Zaintza egitasmoaren helburuak sozializatu, besteak beste Zaintza Eguna antolatuta	Berdintasuna, Zerbitzu Sozialak eta Tokiko Garapena							
	Z.A.E.2.2. Zaintzaileen lan eta bizi baldintza duinen aldeko sentsibilizazio lana egin.	Berdintasuna, Zerbitzu Sozialak eta Tokiko Garapena							
	Z.A.E.2.3. Zaintza-eskubide kolektiboaren gaineko kontzientziazio lana egin, besteak beste, komunikazio kanpaina bidez.	Berdintasuna, Zerbitzu Sozialak eta Tokiko Garapena							
Z.A.E.3. Artikulazio komunitarioa sustatzea	Z.A.E.3.1. Auzozain figura sustatzea.	Berdintasuna, Zerbitzu Sozialak eta Tokiko Garapena							
	Z.A.E.3.2. Auzozaintza auzo berrietara hedatu.	Berdintasuna, Zerbitzu Sozialak eta Tokiko Garapena							
	Z.A.E.3.3. Behar berriak identifikatu eta horren araberako sareak sustatu.	Berdintasuna, Zerbitzu Sozialak eta Tokiko Garapena							
Z.A.E.4. Zaintzaileen eta zaintzarako guneak indartu eta baliabideak sortzea	Z.A.E.4.1. Etxeko langileei begirako arreta integrala eman	Berdintasuna, Zerbitzu Sozialak eta Tokiko Garapena							
	Z.A.E.4.2. Familiako zaintzaileen elkar ezagutza eta ahalduntzerako guneak sortu eta indartu.	Berdintasuna, Zerbitzu Sozialak eta Tokiko Garapena							
	Z.A.E.4.3. Zaintzaileen beharrak detektatu, artatu eta eraldatzeko baliabideak sortu.	Berdintasuna, Zerbitzu Sozialak eta Tokiko Garapena							

4. Lan-ardatza: GIZARTE ANTOLAKETA ERALDATZEA

HELBURUAK	NEURRIAK	ARDURADUNA(K)	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030
E.G.E.1. Hezkuntza formalean nahiz ez-formalean berdintasuna, tratu onak eta sexualitate askea sustatzea.	E.G.E.1.1. Udalak antolatutako Hezkidetza eta Tratu Onen egitasmoa garatu ikastetxe bakoitzaren beharrak aintzat hartuta, trebakuntza-saioak antolatuz, aholkularitza-zerbitzua emanez eta saretzea ahalbidetuz.	Berdintasuna							
	E.G.E.1.2.Hezkidetza eta tratu onen sentsibilizazioa eta trebakuntza landu herriko eragileekin, hezitzaileengan arreta berezia jarriz.	Berdintasuna Gazteria JFK							
	E.G.E.1.3.Sexu-aholkularitza zerbitzua eskaini, hernaniarrek sexualitate askea eta aurreiritzirik gabea izan dezaten bultzatzeko.	Berdintasuna							
E.G.E.2. Herritarrak feminismoaren inguruan sentsibilizatzea eta trebatzea.	E.G.E.2.1.Herritarrak emakume eta gizonen berdintasunaren inguruan sentsibilizatzeko ekimenak antolatu urte osoan zehar.	Berdintasuna Koordinadora Feminista Berdintasun Kontseilua							
	E.G.E.2.2.Berdintasunaren kultura bultzatuko duten balio eta jarrerak sustatzeko sentsibilizazio-ekimenak egin urte osoan zehar.	Berdintasuna Berdintasun Kontseilua							
	E.G.E.2.3.Sexu- eta genero-aniztasuna ikusarazteko eta herritarrei hausnarketa eragiteko ekimenak antolatu.	Berdintasuna EHGAM Loratuz lotu							
	E.G.E.2.4.Gizonezkoak feminismoan sentsibilizatzeko eta aldaketak eragiteko bideak hausnartu eta ekimenak antolatu (erantzunkidetasuna, maskulinitate-eredu berriak…).	Berdintasuna Berdintasun Kontseilua							
E.G.E.3. Emakumeen nahiz bestelako gorputz ez-normatiboen ikusgaitasuna eta aitortza lantzea, arlo ezberdinetan egindako ekarpenak ikusaraziz.	E.G.E.3.1.Emakumeek egindako lana ikusarazteko eta aitortzeko ikerketa-bekaren deialdia egiteko aukera aztertu, eta, egoki ikusten bada, deialdia egin eta egindako lana argitaratu.	Berdintasuna Berdintasun Kontseilua							
	E.G.E.3.2.Hernaniko LGTBIren historiaren inguruko ikerketa zabaldu bitarteko ezberdinen bidez (dokumentala, unitate didaktikoa…).	Berdintasuna Berdintasun Kontseilua							
	E.G.E.3.3.Espazio publikoan emakumeen presentzia sinbolikoa indartzeko lanean jarraitu (Ibilbide Moreak eta bestelakoak).	Berdintasuna Berdintasun Kontseilua							

5. Lan-ardatza: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA

HELBURUAK	NEURRIAK	ARDURADUNA(K)	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030
I.M.1. Indarkeria matxistarik gabeko herria lortzeko herritarrak sentsibilizatzea.	I.M.1.1. Jaien testuinguruan (San Joanak, txotx garaia…) herriko tabernariekin indarkeria matxistaren inguruko lanketa egin, erasoei erantzuteko neurriak adostuz (homofobia, lesbofobia, transfobia nahiz eraso arrazistak ere aintzat hartuta). Aldian behin, lanketa sakonagoa egingo da eta trebakuntza eskainiko da.	Berdintasuna Berdintasun Kontseilua *Berriak*+ herriko ostalariak							
	I.M.1.2. Jaien testuinguruan, indarkeria matxistaren inguruko kanpaina espezifikoak antolatu, eta horretarako beharrezkoak diren euskarriak sortu edo daudenak berritu (informazio-gunea, larrialdietarako telefonoa…).	Berdintasuna Berdintasun Kontseilua Kultura							
	I.M.1.3. Jaien testuinguruan, indarkeria matxistari aurre egiteko eragileen arteko elkarlana eta koordinazioa sustatu.	Berdintasuna Alkatetza Udaltzaingoa Eragile feministak							
	I.M.1.4. Herriko eremu eta esparru zehatzetan indarkeria matxista prebenitzeko lanketa espezifikoak sustatu, eta, beharrezkoa bada, aholkularitza eskaini.	Berdintasuna Herriko eragileak Dagokion saila							
	I.M.1.5. Indarkeria matxistaren inguruan herritarrak sentsibilizatzeko ekimenak egin zaurgarritasun-egoera berezian dauden kolektiboek dauzkaten beharrak eta interesak ikusgarri eginez: adineko emakumeak, aniztasun funtzionala dutenak, etorkinak, etab..	Berdintasuna							
	I.M.1.6. Indarkeria matxista bizi duten emakumeei arreta eta laguntza emateko Hernaniko baliabideen eta zerbitzuen gida berrikusi, egokitu eta zabaldu bitarteko anitzen bidez.	Berdintasuna Zerbitzu Sozialak							
	I.M.1.7. Gizonek indarkeria matxistaren gaiarekiko duten ardura dela eta, hauen inplikazioa sustatzeko gogoetak eta ekimenak antolatu.	Berdintasuna							

5. Lan-ardatza: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA

HELBURUAK	NEURRIAK	ARDURADUNA(K)	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030
I.M.2. Erakundeen eta udal arloen artean indarkeria matxista kasuen kudeaketa eta koordinazioa hobetzea	I.M.2.1. Erakunde Arteko Koordinaziorako Mahai Teknikoa gutxienez urtean behin bildu, arreta-protokoloaren funtzionamendu egokia bermatzeko.	Erakunde arteko Koordinazio mahaia							
	I.M.2.2. Indarkeria matxista bizi duten emakumeen inguruko datuak biltzen dituen segimendurako tresnaren bidez eskuratutako datuetan oinarritutako txostenak egin urtero.	Erakunde arteko Koordinazio mahaia							
	I.M.2.3. Indarkeria matxista bizi duten emakumeen arreta-protokoloa ebaluatu, egindako azterketaren emaitzak Erakunde Arteko Koordinaziorako Mahai Teknikoan aurkeztu, eta datuen inguruko gogoeta eta balorazioa egin.	Erakunde arteko Koordinazio mahaia							
	I.M.2.4. Azterketaren emaitzak aintzat hartuta, balizko hobekuntza-neurriak hartu.	Erakunde arteko Koordinazio mahaia							
	I.M.2.5. Indarkeria matxistaren inguruan etengabeko formazioa antolatu emakumeak artatzen dituzten profesionalekin, eta, bereziki, Udaltzaingoarekin.	Berdintasuna Udaltzaingoa							
	I.M.2.6. Osakidetzako profesionalekin koordinazioa eta elkarlanean sakondu, eta Kulturarteko Plaza Feministako baliabideak ezagutarazi.	Berdintasuna							
I.M.3. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei babes eta arreta osoa bermatzea eta haien ahalduntze-prozesuetan laguntzea.	I.M.3.1. Emakumeenganako diskriminazio eta indarkeria egoeren gaineko aholkularitza juridikoa eskaini.	Berdintasuna							
	I.M.3.2. Indarkeria matxista jasan duten emakumeentzako talde-mailako aholkularitza psikologikoa eskaini (Elkarzaintza taldea).	Berdintasuna							
	I.M.3.3. Kulturarteko Plaza Feministan indarkeria matxistarekin lotuta zer beste zerbitzu osagarri jar daitekeen aztertu, eta, komenigarria ikusten bada, zerbitzu gehiago martxan jarri.	Berdintasuna							
	I.M.3.4. Indarkeria matxista pairatu duten emakumeen ahotsak entzun eta haien erreparazioa eta minaren aitortza egiteko ekimenak abiatu; esaterako, ikerketa beka bat.	Berdintasuna							

06 KUDEAKETA-SISTEMA

Kudeaketa sistema 4 ataletan banatu dugu.

1. **Berdintasuna bultzatzeko egitura espezifikoa**
2. **Planaren kudeaketarako egiturak**
3. **Urteko programazioak eta memoriak**
4. **Aurrekontua**
5. **Ebaluazio-sistema**



1. BERDINTASUNA BULTZATZEKO EGITURA ESPEZIFIKOA

Berdintasun Politikak bultzatzeko egitura espezifikoa du Hernaniko Udalak. Bertan, lau jardun oso eta arduradun tekniko bat daude aurreikusita.



Administrariak izan ezik, gainontzeko postuek berdintasun gaietan ezagutza espezifikoa eskatzen dute, Kalitatezko Estandarretan eta Berdintasun Legearen egungo 18. artikuluan ezartzen den moduan.
Are gehiago, une honetan, lauek dute gai feministen inguruko unibertsitateko masterren bat eginda.

Lanpostuek honako profila dute:
Berdintasun gaietako arduraduna, administrazio bereziko eskalan, teknikoa azpi-eskala erdi mailako plaza A2-23, 4.Hizkuntza eskakizuna, karrera funtzionarioa. Jardun osoko lanaldia.

Berdintasun teknikaria, administrazio bereziko eskalan, teknikoa azpi-eskala erdi mailako plaza A2-20, 4.Hizkuntza eskakizuna, karrera funtzionarioa. Jardun osoko lanaldia.

Kulturarteko Plaza Feministako Koordinatzailea, administrazio bereziko eskalan, teknikoa azpi-eskala erdi mailako plaza A2-19, 4.Hizkuntza eskakizuna, bitarteko funtzionarioa. Jardun osoko lanaldia (2 lanpostu). LPZ-an sarturik

Berdintasun arloak instituzioen arteko hainbat egituratan hartzen du parte, esaterako, Gipuzkoako Teknikarien Langunean edota EUDELek sustatutako Berdinsarean.

Aipagarria da, horrez gain, Europa mailan “transizioan dauden udalerrien sarean”, MEET sarean ere.

2. PLANAREN KUDEAKETARAKO EGITURAK

Berdintasun politiken sustapenerako eta koordinaziorako hainbat egitura daude martxan jada. **Iraunkorrak eta orokorrak diren 3 egitura** daude, eta gai zehatzen ingurukoak gutxienez bost.

Berdintasun kontseilua

Parte-hartzaileak: Udaleko Berdintasun arloko ordezkari politiko eta teknikoak, eta berdintasunaren aldeko herritar antolatuak eta ez antolatuak.

Funtzioak: Udal barruko nahiz kanpoko berdintasun gaiez hitz egiteko interlokuzio espazioa da.

Funtzionamendua: Hilean behin elkartzen da.



Berdintasunerako Sail arteko koordinazioa

(Berdinlanean Batzorde teknikoa)

- **Parte-hartzaileak**: Sail bakoitzeko ordezkari tekniko batek hartzen du parte, baita gobernuko zenbait ordezkarik ere.

Funtzioak: Udaleko berdintasun politiken jarraipena egiten da bertan.

Funtzionamendua: Urtean gutxienez behin elkartzen da.



Batzorde Politikoa

(Berdinlanean Batzorde politikoa)


- **Parte-hartzaileak:** Udal gobernuko partaide guztiek, eta Berdintasun arloko teknikariak.
- **Funtzioa:** Udaleko Berdintasun Politiken jarraipen politikoa egiten da bertan. Berdintasun gaien berri izatea da helburua.
- **Funtzionamendua:** Gutxienez legealdi bakoitzean goiz osoko lan-saioa egin ohi da, eta beharren arabera, urtean zehar bestelako saioak.



Egitura hauek, besteak beste, IV. Berdintasun Planari jarraipena egiten eta ebaluatzeko dira.

2. PLANAREN KUDEAKETARAKO EGITURAK

Aurrez aipatu bezala, **gai espezifikoen inguruko koordinazio espazioak** ere badaude. Jarraian zerrendatu dira garrantzitsuenak.



3. URTEKO PROGRAMAZIOA eta MEMORIAK

Orain arte egin den moduan, urte bakoitzaren amaieran hurrengo urteko plangintza definituko da Berdintasun Sailaren lantaldean. Lan lerroren bat beste departamentu edo sail batekin irekita badago, ekintza horren lan plangintzaren jarraipena beraiekin adostuko da. Berdintasun Zinegotziaren onespena ere izango du urteko plangintzak.

Berrikuntza gisa, urtero egindako lanaren memoria osatzea da asmoa. Helburua da lanaren jarraipena errazteko dokumentu erraz eta arina egitea.

4. AURREKONTUA

Zazpi urteko proiekzioa duen Plan honek 2.011.000 euroko aurrekontua izatea aurreikusten da (pertsonal gastuak kenduta). Gutxi gora behera, urtero 287.285,72 euro. Planaren 5 ardatzak kontuan harturik, ardatz bakoitzaren kostua horrela geratuko litzateke.

ARDATZA	2030 bitarte	Urtero
Gobernu ona	300.000 €	42.857,14 €
Emakumeen ahalduntzea	219.000 €	31.285,71 €
Zaintzen antolaketa eraldatzailea	266.000 €	38.000,00 €
Gizarte-antolaketa eraldatzailea	815.000 €	116.428,57 €
Indarkeria matxistarik gabeko herria	411.000 €	58.714,29 €

5. EBALUAZIO-SISTEMA

1. EKINTZEN BETETZE MAILA NEURTZEKO

Urtero ekintzen jarraipena egingo da Planaren taularen bidez. Bertan aurreikusitako ekintza egin den, erdizka egin den edo ez den egin jasoko da.

Datu kuantitatiboa

2. PLANAREN URTEROKO BALORAZIO TXOSTENA

Urtero egindako lanaren memoria ulerterraz eta laburra egitea da asmoa, lanaren jarraipena hobeto egiteko.

Analisis kuantitatibo eta kualitatiboa

3. HELBURUEN BETETZE MAILA NEURTZEKO ADIERAZLEAK (ikus jarraian)

Planaren bukaeran planifikatutakoaren betetze maila eta eragindako aldaketak hobeto neurtu ahal izateko adierazle sortu bat jaso dugu, Planaren ebaluazioa errazteko.

Adierazleak

PLANAREN AMAIERAN PLANAREN ERAGINA NEURTZEKO ADIERAZLEAK

Taula honetan Planaren eragina neurtzeko adierazle sorta bat proposatzen da. Helburua da, ekintzen betetze mailaz haratago, Planak izan duen eragin maila neurtu ahal izatea.

LAN-ARDATZAK	PROGRAMAK	ERAGIN-MAILAREN ADIERAZLEAK
1.Gobernu Ona	KONPROMISO POLITIKOA	1. Berdintasun Sailaren aurrekontua, eta udal-aurrekontuaren alderatuta, ehunekoa
	KOORDINAZIOA ETA JARRAIPENA	2. Berdinlanean mahai teknikoaren bilera kopurua
		3. Urteroko Planaren garapen memoria txostenak
	GENERO IKUSPEGIA POLITIKA SEKTORIALETAN	4. Udalaren berdintasunerako barne-planaren garapen-maila
	PARTE HATZEA ETA ERAGINA	5. Berdintasun Kontseiluaren bilera kopurua eta berau indarketzeko hartutako neurrien balorazioa
2. Emakumeen Ahalduntzea	KONTZIENTZIAZIOA	6. Jabekuntza Eskolatik pasa diren emakume kopurua urtero, eta horien asetasun-maila
	AHALDUNTZE SOZIALA	7. Martxoak 8ko egitarauan parte hartzen duten udaleko sail nahiz eragileen kopurua
	KULTURARTEKO PLAZA FEMINISTA	8. Herrian erreferentzialtasuna lantzeko egindako ekimena eta balorazioa

LAN-ARDATZAK	PROGRAMAK	ERAGIN-MAILAREN ADIERAZLEAK
3. Zaintzen antolaketa eraldatzea	EGITURAK	9. Zaintza Mahaiaren eta zaintza talde herritarraren urteroko bilera kopurua eta bertan parte hartzen dutenen eragile kopurua.
	SENTSIBILIZAZIOA ETA TREBAKUNTZA	10. Zaintzaileen lan baldintzak ezagutzera emateko egindako ekimen kopurua eta hauen balorazioa
	ARTIKULAZIO KOMUNITARIOA	11. Auzozaintza programaren balorazioa
	BALIABIDEAK	12. Baliabide berri kopurua, hori diseinatzen eta kudeatzen parte hartu duten kopurua eta azkenik, baliabide horien balorazioa
4. Gizarte-antolaketa eraldatzea	HEZKIDETZA-SEXUALITATEA	13. Ikasle, irakasle, guraso zein herri eragileei eskainitako trebakuntza orduan. Sexu aholkularitza zerbitzuaren erabiltzaile kopurua eta zerbitzuaren balorazioa
	HERRITARREN SENTSIBILIZAZIOA	14. Aurrera eramandako sentsibilizazio kopurua eta hauen balorazioa
	OROMEN HISTORIKOAREN BERRESKURAPENA	15. Ikerketa beka zabaltzeko sortutako bitarteko kopurua eta ikerketa bekaren balorazioa
5. Indarkeria matxistarik gabeko herria	SENTSIBILIZAZIO-PREBENTZIOA	16. Baliabideen gida berritu eta berau zabaltzeko erabilitako hizkuntza eta bitarteko kopurua
	KOORDINAZIOA eta BABESA	17.Erakundeen arteko mahaiak izandako bilera kopurua eta protokoloaren balorazioa
	AITORTZA eta ERREPARAZIOA	18. Zerbitzu berrietako erabiltzaile kopurua eta horien asetasuna (zerbitzu juridikoa, elkarzaintza taldea…)

elhuyar

ezagutuz aldatzea

www.elhuyar.eus